

- Enpresak ordaintzeko betebeharra ez betetzea.
- Kontratu finko eteneko langileak: kanpaina amaitzean bajaran jarraitzea.
- Bajan 6 hilabete baino gehiago egotea eta enpresak 10 langiletik behera izatea (betiere, enpresak berariaz aukera horren aldeko hautua eginez gero).

Bajaren eta prestazio ekonomikoaren iraupena

Aldi baterako ezintasunak 365 eguneko iraupena izango du, gehienez ere. Epe hori amaitutakoan, GSINk aztertuko du zure mediku egoera, eta hark aitortuko du berariazko luzapena (180 egun gehiago, gehienez ere), aginduko du ezintasun iraunkorreko espedientea hastea edo mediku alta emango du.

Ondorioengatiko prestazioak

Prozesua amaitutakoan, behin betiko ondorioak izanez gero –urtarrilaren 28ko ESS/66/2013ko Aginduan jasotako baremoen taularen arabera balioesgarriak–, eskubidea izango duzu GSINk ondorio horiek azter ditzan, 5 urteko gehieneko epean. Prestazio Sailak GSINri aurkeztuko dio zure espedientea, zer prestazio eta zer zenbateko dagozkizun erabakitzeko beharrezko osasun dokumentazio guztiarekin, eta, hark kalte-ordaina jasotzeko eskubidea aitortuz gero, Mutua arduratuko da hura ordaintzeaz.



Prestazio sozialak

Laneko istripua edo gaixotasun profesionala jasan izanaren ondorioz premia jakinen bat baduzu, MUTUALIAk badu funts bat, Prestazio Berezien Batzordeak kudeatua, zeinaren bidez izango duzun eskura asistentzia eta laguntza ekonomikoen sorta zabala. Laguntza horiek Gizarte Segurantzaren prestazioekiko independenteak eta bateragarriak dira. www.mutualia.eus webgunean kontsulta daitezke prestazio horien katalogoa eta horiek eskuratzeko baldintzak.

Nola kudeatu nire prestazio eskaria

MUTUALIAri baldin badagokio mediku bajako prestazioa zuzenean ordaintzea, eskaria aurkeztu beharko diguzu. Horretarako, edo sortzen zaizun beste edozein zalantza argitzeko, jar zaitez gurekin harremanetan, honako bide hauetatik:

	TELEFONOA	FAXA	POSTA ELEKTRONIKOA
ARABA	945 00 90 90	945 00 90 91	prestacionesvi@mutualia.es
BIZKAIA	944 04 21 02	944 04 21 03	erandioprestaciones@mutualia.es
GIPUZKOA	943 42 65 00	943 43 01 53	prestacioneseconomicasgipuzkoa@mutualia.es

GOGOAN IZAN:

- Garrantzi handikoa da zure datu pertsonalak (helbidea, telefonoa...) eguneratuta edukitzea Mutualian, zure enpresan nahiz Gizarte Segurantzako erakundeetan.
- Mutualiako medikuak, mediku baja agindu badu, 3 laneguneko epea izango duzu enpresan bajaren partea aurkezteko eta lanegun bateko epea altaren partea aurkezteko.
- Norbere konturako langilea izanez gero (RETA), Delta sistemaren bidez bete beharko duzu istripuaren partea.
- Zure telefono mugikorrean SMS bat jasoko duzu, Mutualiak zure banku kontuan aldi baterako ezintasunaren prestazioagatik zuzeneko ordainketa egiten duen aldi oro. Hemen kontsulta dezakezu ordainketen egutegia: www.mutualia.es.
- Zure mediku, osasun eta ekonomia informazioa online eskuratu nahi izanez gero, deskarga ezazu gure APPa.



**24 orduko
telefono
bidezko
arreta**
900 50 60 70

Arestian emandako informazio guztia aplikagarri den legedian dago oinarrituta: 8/2015 LED (Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra), 625/2014 ED, 1646/1972 D, 3158/1966 D eta horiek garatzen dituzten gainerako arauak.



Kontingentzia profesionalen pazienteentzako informazio gida

**Zer zerbitzu eta prestazio eskura
ditzaket MUTUALIArean, laneko istripua
edo gaixotasun profesionala
jasanez gero?**

OSASUN PRESTAZIOAK ETA ZERBITZUAK

Osasun asistentzia

Eskubidea duzu laneko istripu edo gaixotasun profesional baten ondorioz beharrezkoak dituzun mediku, kirurgia edo/eta errehabilitazio tratamenduak jasotzeko, gure larrialdietako zerbitzuetan, **Asistentzia Sare** propioko anbulatorio eta kliniketan (24 orduko arreta ematen duten klinikak Donostian eta Bilbon; Erabakimen Handiko Ospitalea, Gasteizen; eta 13 asistentzia zentro anbulatorio), baita hitzartutako zentro sare zabalean ere. Kontsulta itzazu guztiak www.mutualia.eus webgunean edo **900 50 60 70** doako telefonora deituta.

Mutualiak zure osasuna berreskuratzeko beharrezko **medikamentu eta produktu sanitarioez** hornituko zaitu, inolako kosturik gabe.

Osasun arreta hori jasotzeko, honako **dokumentazio hau aurkeztu** beharra dago: NAN, indarrean (edo nortasuna egiaztatzeko beste edozein dokumentu baliokide), eta asistentzia partea, zure enpresak bete. "In itinere" istripua bada (hau da, lanerako bidean edo lanetik itzultzean gertatua), zure enpresak lan ordutegiaren egiaztagiri bat ere bidali beharko du; eta zirkulazio istripua izanez gero, atestatua, adiskidetasunezko parte a edo/eta aseguruari egindako deklarazioa helarazi behar dizkiguzu. Bestalde, langile autonomoa bazara, norberaren dokumentuez gain, enpresari buruz eskatzen dizkizugun dokumentuak aurkeztu beharko dituzu.



Gainera, asistentzia eskaintzeko, "baimen informatua" sina dezazun behar dugu (gure langile administratiboek emango dizute); baimen horretan, **zure datu pertsonalak** babesteari buruzko informazioa agertzen da (indarrean dagoen legediaren arabera).

Lehen asistentzia jasotakoan, medikuek erabakiko dute zure egoera klinikoa bateragarria den zure lan jarduerarekin; hala bada, lanera itzuli edo hurrengo egunean lanean hasi beharko duzu, medikuek emandako jarraibideak betez, eta enpresara eraman beharko duzu haiek zure enpresarentzat emandako dokumentazioa.

Mediku baja eta alta

Zure egoera klinikoa ez bada zure lanarekin bateragarria, **mediku baja** emango dizute (bi kopia), eta bertan, adierazita dago prozesuaren gutxi gorabeherako iraupena eta hurrengo osasun hitzorduaren data. Kopia horietako bat zure enpresari eman beharko diozu 3 egun balioduneko epean (3 lanegun).

Prozesuaren hasieratik, **mediku arduradun** bat esleituko dizute, eta hark artatu eta gidatuko zaitu asistentzia prozesu osoan zehar; harengana jo ahal izango duzu osasunari buruz zalantza guztiak argitzeko.

Gogorarazi nahi dizugu medikuaren hitzorduetara justifikaziorik gabe huts eginez gero edo gure medikuek agindutako tratamendua hartzeari uko eginez gero, mediku alta jasoko duzula eta bertan behera geldituko dela aldi baterako ezintasunaren prestazio ekonomikoa.

MUTUALIAko mediku zerbitzuek alta emandakoan, 24 orduko epea izango duzu **mediku altaren** kopia bat zure enpresari emateko. Nahi izanez gero, asistentzia prozesu osoari buruzko altako txostena eskatu ahal izango diguzu, baita zuri egindako proba diagnostikoen irudi eta emaitzak ere.



Laneko altarekin ados ez bazaude, medikuak emandako **alta berrikustea** eskatu ahal izango duzu (alta inpugnatzeko prozedura), Gizarte Segurantzako Institutu Nazionalaren (GSIN) aurrean, alta eman denetik hurrengo 10 egun balioduneko epearen barruan. Eskari hori egiteko inprimakia www.seg-social.es webgunean duzu eskuragarri.

Garraioko gastuak itzultzea

Aldez aurretik eskatuz gero, MUTUALIAk osasun arreta jasotzeko egin beharreko joan-etorrietatik eratorritako garraio gastuak ordainduko dizkizu. Garraio publikoko gastuak ordainduko dira (garraio bonuaren prezioan), baita ibilgailu pribatuan egindakoak ere, baldin eta asistentzia zentroa bizi zaren herritik kanpo badago (kilometroa 0,19 €-an, barne direla aparkalekuaren, autobidearen eta abarren balizko gastuak). MUTUALIAren kontura beste edozein garraibide erabili ahal izateko, medikuak halaxe agindutakoa izan beharko du.



PRESTAZIO EKONOMIKO ETA SOZIALAK

Aldi baterako ezintasuna

Mediku bajaran baldin bazaude, MUTUALIAren kontura izango da prestazio ekonomikoa, bajaren 2. egunetik aurrera (1. egunaren ordainketa enpresari dagokio), alta jaso arte.

Egunero zenbat kobratuko dut?

Oro har, bajaren aurreko hilabeteko kotizazio oinarriaren %75ekoa izango da prestazioaren zenbatekoa, zati, kotizazio horri dagozkion egun kopurua. Zure enpresak prestazioa %100era arte osa dezake (Hitzarmenaren arabera).

Hauek dira salbuespen ohikoenak:

- Lanaldi partzialeko kontratuak bajaren aurreko 3 hilabeteetako kotizazioa batzen, eta kotizazio horri dagozkion egun kopuruaz zatitzen kalkulatzen da. Horrela lortutako emaitzaren %75 izango da prestazioaren zenbatekoa.

- Berriz gaixotzea (arrazoi beragatik berriro mediku bajaran egotea), langabezia egoeran: langabeziari dagokion zenbateko bera kobratzen da.

Nork ordainduko dit?

Norbere konturako langileei (RETA) zuzenean MUTUALIAk ordaintzen die beti.

Erregimen Orokorreko talde hauei ere MUTUALIAk ordaintzen die zuzenean:

- Etxeko langileak
- Merkataritza ordezkariak
- Jubilatu partzialak
- Besteren konturako nekazariak
- Itsasoko langileak (1. kotizazio taldekoak izan ezik)
- Artistak eta zezenketakoak



Besteren konturako gainerako langileei nominan ordainduko die enpresak prestazioa (gero Gizarte Aseguruetan kenduko da gastu hori). Honako egoera hauetan baizik ez die ordainduko MUTUALIAk zuzenean:

- Laneko harremana iraungitzea (kontratua amaitzea, kaleratzea edo borondatezko baja).
- Baja hasi eta 365 egun beteta aldi baterako ezintasunaren luzapena aitortzen dion GSINren ebazpena jasotzea (ebazpenaren hurrengo hilabeteko lehen egunetik).